

BERRIGARA

21. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, urriak 8

**UBILATUETAN
BAZKARI
ZERBITZUA
EGOKITU DA**

**ANTONIO
URZELAI
HIL ZEN
JOAN ZEN
OSTEGUNEAN**

KIROLAK

**BERGARA KIROL
ELKARTEKO
ESKUBALOI
SAILA MARTXAN**



**ASTEARTEAN
ELOSUKO
GANADU
FERIA**

GIARTZU

DERMO-ESTETIKA ZENTRUA

Boni-Laskurain, 3 beheka


☎ 76 35 71

BERGARA

- ZIMURRENTZAKO TRATAMENDUA.
- URREZKO HARIEN INPLANTAZIOA.
- KOLAGENO INFILTRAIOA.
- AKNEA KENTZEA.
- ZELULITISARENZAKO TRATAMENDUA.
- MASAIA.
- DEPILATZE ELEKTRIKOA GARANTIZATUA (EZ MIN ETA EZ MARKARIK GABEA).
- ARGIZARIZKO DEPILATZEA (BOTATZEKO ARGIZARI HOTZA ZEIN BEROA).

ORDUTEGIA: 9:00-13:00 / 14:30-20:00

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



Kutxa fundazioa

gipuzkoa donostia kutxaren
gizarte-ekintza



IGORRIA

IMPRECI, EIk. Koop. Mug.a, AENOR-ren egiaztagiria lortu duen Bergarako lehenengo enpresa

AENOR, Espainiako Normalizazio eta Egiaztapenerako Elkarteak Enpresaren Kalitate Egiaztagiria eman zion joan zen otsailan IMPRECIri. Egiaztagiri hori ISO 9002 nazioarteko arauan (EN 29002 arau europarraren eta UNE 66.902 arau espainiarren baliokidea) oinarritzen da.

Egiaztagiri horrek produkzioaren kalitatea segurtatzeko IMPRECIIn martxan jarri den Kalitate Sistemarekiko aitortpena adierazten du.

ISO 9002 arauak zenbait arlo bereizten ditu enpresaren Kalitatearen Gestioan; ondorengoak, besteak beste: dokumentazioaren kontrola, erosketen gestioa, produkzio ihardueraren kontrola, ekipoen ikuska-

keta, lanketa, produktuen almagaztatze eta entregatzea, kalitatearen barne auditoriak, prestakuntza politika, etab.

Arau hau betetzeak ikaragarritzko garrantzia du automozio arloko piezak fabrikatzerakoan, IMPRECIk gaur egun duen lan-iharduera nagusian hain zuzen.

Egiaztagiri honek ondorengo arloak betetzen ditu:

- Burdina, latoi eta aluminiozko piezen dekoletajea, 0 18 eta 0 60ra artean.

- 0 700 eta 95 kilorarte dituzten piezen txirbil harroketazko mekanizaketa, tornu, fresatzeko makina, artezteko makina, brotxatzeko makina, C.M.V. eta transfer makinen bidezkoa.

- Altzairuzko eta burdinur-tuzko piezen zinkeztatzea.



Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
 Errotalde Jauregia, 20.570
 Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara

Tínoa. eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
 eta Mikel Elkoroberezibar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
 Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Eduarne
 Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta
 Alex Labaien.

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
 Angel Elkoroberezibar, J. M.
 Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
 Maripli Laskurain, N. Alzelai,
 Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
 Lizarralde, Monika Belastegi,
 Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
 Asier Madinabeitia, Josune Inarra
 eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifú.

Komikia eta marrazkiak: Josu
 Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati.)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
 tzen aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta erlitzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

JOKIN ETXANIZ

Jokin Etxaniz berga-
 rar pelotariak ez du
 azkenean eskuz bina-
 kako pelota txapelke-
 tan parte hartuko. Az-
 ken hilabete t'erdian
 lesio bategatik gelditu-
 ta egon ondoren (joan
 den astean egin zuen
 Jokinek berragerpena)
 asteazkenean bertan
 Empresas Unidaseko
 zuzendariekin bildu
 zen bere egoera azter-
 tzeke.



Jokinek txapelketa
 hasten denerako joka-
 tzeko moduan izango
 zela eta Zezeaga ez
 kaltetzeko beste edo-
 norrekin jokatzeke
 prest zegoela esan
 zien. Hasiera batetan
 Tolosarekin jokatzea

eskeini bazioten ere,
 Etxaniz azken momen-
 tuan txapelketatik kan-
 po geratu da. Bere hi-
 tzetan, "*disgusto haun-
 dia hartu dut baina
 aurrera egin beharra
 dago*". Zezeagak Lejar-
 direkin jokatuko du.

Ez du binakako pelota txapelketan parte hartuko

ITURRI ONETIK

Koldo Eleizalde ikastetxeetan

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikorako
 Idazkaritzak orain 75 urte Euskaltzaindiako
 sortzaile (Azkue, Campion, Urkijo eta Koldo
 Eleizalde bergarra) izan zirenei buruzko 4
 liburuxkako sortatxo bat argitaratzeaz du.
 Bergarako Udaleko Euskara batzordeak Koldo
 Eleizalderi buruzkoa 500 aletan gehitzeko
 eskakizuna egiteko asmoa du, Bergarako
 ikastetxeetan banatzeko.

ESAN DUTE

"Legeak ehizarako
 eginda daude, ez
 animalien
 babeserako. Ehiztaria
 abantailaz ari da
 hasieratik. Beren alde
 egindako lege horiek,
 oso gutxi betetzen
 ditu. Ehiztariak berek
 gestionatzen dute
 dena. Furtibismoa oso
 gauza arrunta da".

IÑAKI MADINABEITIA


Ekologista
 ARGIA

"Marketina
 enpresaren alorrik
 garrantzitsuena da.
 Produktuan ondo
 kokatzen bazara eta
 kostoak
 konpetitiboak baldin
 badira, enpresa laster
 sendotuko da.
 Enpresaren beste
 oinarria pertsonalaren
 kalitatean datza.
 Igogailu
 konplexuenak egiten
 ditugu,
 multinazionalekin
 konparatuz enpresa
 txikia izan arren".

AGUSTIN
 AMASORRAIN
 ORONAKo gerentea
 ARGIA



Aldizkari honek
 Gipuzkoako Foru Aldundiaren
 laguntza jaso du



Aldizkari honek
 Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
 Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
 Tínoa: 76 23 48

ETXALAR

KRUASANTEGIA

Gosariak eta
 meriendak

Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68



EL ULTIMO GRAN HEROE

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Asteazkena: 19.30.



LA ASESINA

Astelehena: 22.30.

Astertea: 17.00, 19.30, 22.15.



ROBOCOP 3

Igandea: 11.30.

Zinea

▼▼ **Arnold Schwarzenegger**ek ikutzen duen guztia takillako arrakasta bihurtzen da. **John Mc Tiernanen** filme honetan ere, heroiairen papera landuko du. Pantailatik irten eta bera idolotzat duen mutil batekin mila abentura biziko ditu.

▼▼ Amerikarrek **Nikita** filme frantziarraren bertsioa egin nahi izan dute. Bere zigorra murrizteko delinkuente izandako neska bat (**Bridget Fonda**) poliziarekin lan egitera behartua izango da.

▼▼ Lehen zatiak lortutako arrakasta aprobetxatu nahi izan dute produktoreek. Oraingo 3. zati honetan Robocopek Detroiteko polizia utzi eta filmeko txarrekin elkartuko da. Tiroak eta akzioa zihurtatuta.

Deiak

▼ **Laskurain** bergarar margolariaren erakusketa Oñatiko Unibertsitatean. Igandera arte.

▼ **Marcelino Ruizen** "Gure herria" pintura erakusketa Nahikari tabernan.


▼ **Kirol argazkien** XIII. Nazioarteko Lehiaketako lanak Kultur Etxean igandera arte.

▼ **Zine-kluba.** *Olivier, Olivier* filmea ostegunean 19.30etan Novedades artean.

▼ **BOTA** talde antimilitaristak deituta, intsumisoen batzar informatiboa izango da larunbatean, hilak 9, Zabalotegi Dorreko lokalean 16.30etan.

Ogia

▼ **Igandea 10:** Mizpildi.
▼ **Asteartea 12:** Ogizun.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 9:** Estella.
- ▼ **Igandea 10:** Estella.
- ▼ **Astelehena 11:** Mozos.
- ▼ **Asteartea 12:** Camacho.
- ▼ **Asteazkena 13:** Puy.
- ▼ **Osteguna 14:** Guallar.
- ▼ **Ostirala 15:** Estella.

HARATEGIA

ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
utxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09



**LASA
JATETXEA**

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

KIROL KARTELDEGIA

FUTBOLA

BERGARA-AITZKORRI.

Lehen mailako kadeteak.
Larunbata, 10:00. Ipintza.

BERGARA-SEGURA.

2. mailako jubenilak.
Larunbata, 11:30. Ipintza.

BERGARA-HONDARRIBIA.

Preferente maila.
Igandea 16:15. Agorrosin.

FUTBITOA

LARUNBATA:

- 9:00: LABEGARAIETA-E.H. BITERRAK.
10:00: KIROLZALEAK-OZAETA.
12:30: EUSEBIO II-EGOKI.
16:00: LA TXUPETA-OZAETA.
17:00: KALIMOTXO-KRAY.
18:00: ALDOKA MALDOKA-KK USAIN.
19:00: ARI ARI-ARKUPE.


ASTEARTEA:

- 9:00: TXIPIRON-KRAY.
10:00: REVIENTA-ERI.
11:00: USOA-ARLOTEAK.
12:00: K. POTRUAK-SOROPOTROAK.
13:00: KIROLZALEAK-UVE BIKOITZA.
16:00: PATA NEGRA-EUSEBIO II.
17:00: AMOZKIBAR-ARRANO.
18:00: KALIMOTXO-ETXAGI.

Partidu guztiak Labegaraietako
Kiroldegian.




▼▼ **Futbito txapelketako** partiduak jokatuko dira larunbat eta asteartean Kiroldegian. Lehen mailan 20 talde eta bigarrenen beste 26 ari dira parte hartzen. Lehen mailan dagoeneko bi ihardunaldi jokatuko dira eta Errotagain eta Toki-Eder taldeak ditugu sailkapen buruan 4 punturekin. 2. mailan, berriz, 3 ihardunaldi jokatu ondoren, Etxagi, Eri eta Revienta taldeek irabazi dituzte partidu guztiak. Argazkian, Usoa, iazko ligako txapeldunordea.



Patxi Eugi bizi-bizian ikusteko aukera.

5



PROFESIONALAK

- Galarza-Eugi. Lau t'erdiko txapelketako finala. (ETB).
- Balerdi eta Lasa III.a/ Lejardi eta Azkarate.
- Kalonge eta Alberdi III.a/ Intxaurren eta Alberdi III.a.

Larunbatean,
16.30etan Udal
Pilotalekuan.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Mujika Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

NIP eta Maltzaga Urbina

Iraileko bigarren astean hasi ziren interbentzio gune partehartzailen aurreproiekturako aurkezpen bilerak. Eusko Jaurlaritzaren asmoa izanik Gizarteaz enpresak daraman lan hau nahiko ahul jaio da.

Pertsonalki IGPKo proiektua azaltzeko bilera batean parte hartzeko aukera izan nuen eta esan beharra daukat galdera asko aidean gelditu zirela, Gizarteaz enpresaren arduradunek ez baitzuten jakin erantzunik ematen. Garbi dago Gizarteaz enpresak gizarte debatea martxan jarri eta dinamizatzear arduratuko dela soilik. Beste guztia, hau da, Maltzaga-Urbina ardatzaren proiektuak, alegazioak, proposamenak eta zer esan guztiak Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Udalek, talde eta erakunde desberdinek eta afektaturiko biztanle eta pertsonak azaldu beharko ditugu. Beraz, guztiz demokratiko eta garbia dirudien debate bat sortuko da.

Baina nola argudiatzen dituzte administrazio buruek, jadanik prozedura martxan jarri baino lehenago, beraiek eginiko adierazpenak?. Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoa eta Ara-

bako Foru Aldundiko bozeramaileek garbi esan dute Maltzaga eta Urbina lotuko den ardatza autopista bat izango dela (edo gehiago nahasteko peaje-dun autobidea). Izena eta guzti jarri ditze proiektua bultzatuko duen enpresari: "Deba Bailarako Autobidea S.A."

Beraz, guk kaleko biztanle arruntek, ze sinesgarritasun eman diezaiogegu planteatzen den gizarte debate honi?. Ze punturaino ez da aurpegia garbitzeko maniobra bat?

Interbentzio gune partehartzaille sistema hauek inposatutako zenbait proiektu eta egitasmoren inguruan sortzen diren aurkako iritziak, istiluak eta abarrak ez suertatzeko bide on bat izan daitezke. Inposaketak istiluak areagotzen ditu, eta hauek ahal den neurrian ebitatu behar direlakoan nago, baina arren, administrazio eta instituzioei eskatzen dizuet garbi jokatzeko eta ez dezazuela inposaketa prozedura demokratiko baten gerizpean izkutatatu. Interbentzio gune partehartzailleak: hiritarrek partehartzeko benetako sistema bat?; arazo zehatzei irtenbide eraginkorra bilatzeko medio bat?; adostasun eta elkarrizketarako benetazko bide bat?.

*Aitor Aranzabal
EGUZKIKo kidea*

BERRIGARA Gida 94

lazko Gabonetan atera genuen BERRIGARA GIDA 93an zure telefonoa jarri ez bazenuen eta 94koan agertu nahi baldin baduzu, dei egiguzu lehenbailehen telefono honetara: 76 08 19 (Jardun). Ordutegia: 18:00-20:00.

Tiira ba!



Josu Okina

Udalak joan den asteko protesta ekitaldiak salatu zituen Plenoan

HBk erregu eta galderetan hilketen inguruan aurkeztutako testua erreflesio modura irakurri zen eta ez da aktan jasoko

EAJ eta HBren artean tirabirak izan ziren Gurutze Yanci eta Xabier Kalpalsororen hilketaren inguruan joan zen astean izan ziren protestaldi eta istiluak zirela eta.

Joan zen asteleheneko Plenoan EAJk testu bat aurkeztu zuen erregu eta galderetan. Bertan, Miren Gurutze Yanci eta Xabier Kalpalsororen heriotzengatik beren doluminak azaldu eta inbestigazioa eta erresponsabilitateak aztertzea eskatzen zuen EAJk.

Horrez gain, joan den astean herrian izandako erasoak (ondare artistikori artatean) salatzen ziren, "forma demokratikoak baztertuz". Idatzi honek talde guztien oneritzia jasozuen, HBrena ezik.

Boto esplikazioan EAK antiterrorista legea desagertzera eskatu zuen eta HBk berriz, lehen bi puntuekin ados egon arren, Bergaran izandako erasoek sustar bat dutela adierazi zuen. "Herri honi bere eskubideak emango balizkiote, ez ginateteke egoera honetan egongo" gehitu zuen HBko zinegotziak.

HBko zinegotziek beste testu bat eramán zuten baina puntu bezala aztertu nahi ez eta erreflesio



Plenoak onartutako lan konbenioak 142 Udal langileri eragiten die.

modura irakurri behar izan zuten. Bertan aipatutako hilketak argitzeko eskatzeaz gain, "Gobernu Espainolak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duten errepresioaren ondorio" zirela adierazten zen. Victoriano Gallastegi alkateak testu hori aktan ez zela jasoko adierazi zuten.

Lan konbenioa

Era berean, 142 udal langileri eragiten dien lan konbenioa onartu zen EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin, EA abstenitu egin zen eta HB kontra azaldu zen. Konbenioak soldaten % 5eko egoera

eta urteko lan orduak 2 ordutan gutxitzea suposatzen du. Bestalde, "despido inprocedentea" gertatuz gero, Udalak langilea berriz hartzeko konpromezua hartzen du konbenioaren arabera.

tzioa eta PSE-EEren kontrako botoak jaso zituen.

Azkenik, igerilekuetako tabernaren ustiaketa (bi hizkuntza ofizialak jakitea gehituko da oinarrietan) eta igerilekuetako mantenimendu tekni-

Huelvan lortutako arrakastagatik Orkesta Sinfonikoa zoriontzea erabaki zuen Udalbatzak

Konbenioan jasotzen den Elkarkidetzaren eranskina (sozio direnei Udalak pentsio fondorako ordaintzen dien kantidadea) aparte aztertu zen eta honek EAJ eta HBren aldeko, EAren absten-

koak kontratatuzko oinarriak onartu ziren.

Alderdi guztiek, aho batez, Huelvan lortutako arrakastagatik, Bergarako Orkesta Sinfonikoa zoriontzea ere erabaki zuten.

Altzari eta traste zaharren bilketa asteazkenean

Bergarako Udalak jakin arazi denez, hileroko altzari eta traste zaharren bilketa, datorren asteazkena, urriak 13an egingo da asteartea jaieguna delako.

Zuzendaritza Batzordea berriztu Jubilatuetan

Jubilatuetakoko Zuzendaritza Batzordea berrizteko kandidatura aurkezteko epea zabaldu zen asteazkenean. Asteartean, hilak 12, itxiko da eta urriaren 28an Zuzendaritzako hamar kideak aukeratzeko bozketa egingo da. Jubilatuetako Zuzendaritza Batzordea bi urtetik bi urtera berriztu ohi da.

Erregearen bisitaren aurka

Herri Batasunak deituta, astearte gauean zenbait herritarrek Espainiako Erregeak Bilbora eginiko bisitaren aurkako protesta zaratatsua burutu zuten herriko kaleetan.



Urtero bezala, Elosun jende ugari biltzea espero da Pilareko egunean.

Elosuko mendiko ganadu feria

Elosuko feriak ospe haundia lortu du azken urteotan

Datorren asteartean, ohiturari jarraituz, Elosuko Mendiko Ganadu Feria ospatuko da. Elosuko auzo eta Jai Batzordeak, Azkoitiako Udalaren laguntzaz, programa zabala iragarri du Pilareko egunerako.

Goizeko 9etan feriarri hasiera emango zaio, ordubatean sari banaketa burutuko da eta ordu laurden beranduago Lizaso eta Gorrotxategi bertsolarien saioa izango da. Arratsaldean, 5etan, Goenatxo II.a harrijasotzailearen saioa izango da eta Korta Elosuko 21 urteko gazteak ere bere debuta egingo du

harrijasotzaile modura. Ondoren, txinga lehiaketa jokatuiko da. Eguztian zehar Laja eta Landakanda trikitilariak arituko dira eta arratsaldean, berriz, txaranga batek alaituko du giroa.

Ganadu feriarri dagokionez, urtez urte feriatan maila igotzen doa; horren lekuko iaz lehiaketara aurkeztutako animalien marka hobetzea (210 buru) eta Elosun bildutako jendetza aipa daitezke. Animaliez gain, baserriko produktuak, makineria eta beste hainbat produktu ikusgai izango dira.

MAKAILO
Makailau **ETXEA**
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

MINER Ardo onak,
ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA



LIZAR
Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53



Jubilatueta berriztutako sukaldean prestatuko dira bazkariak.

Bazkariak Jubilatuetan

Astelehenean zabaldu zen bazkideei zuzendutako zerbitzua

Bergarako Jubilatuen Egoitzak bazkideei zuzendutako bazkari zerbitzua jarri zuen martxan astelehenean. Asteazken bazkariak 13.30etan emango dira eta jaiegunetan, ordubete beranduago, 14.30etan hain zuzen. Zerbitzu honen zabaltearekin batera, Jubilatuen Egoitzako ordutegiak berdin jarraituko du, kafetegiko ordutegia ezik: laneunetan 11etatik ordubatera eta 3retatik 9etara egongo da zabalik kafetegia eta jaiegunetan 11etatik ordubietara eta 4retatik 9etara.

Bazkaria hartzeko eskakizunak

bezperako arratsaldetan edota goizean bertan, 11ak arte, egin ahal izango dira eta prezioa 410 pta. koa izango da. Egoitzaren berrikuntzan eginiko sukalde berria erabiliz, lehen eta 2. platera, postrea, ur pitxarra eta ogi puxketa emango dute kafetegiko zerbitzukoek.

Mertxe Agirre Gizarte Laguntzaileraren hitzetan, "lehen egunean 9k bazkaldu zuten eta Erreterria, Irun edota Donostiako egoitzetan, basieran, antzeko erantzuna izan zuten. Espero dugu pixkanaka pixkanaka jendea animatzen joatea".

Rigoberta Menchuri dirulaguntza

Elkarri elkarrizketa eta akordioaren aldeko giza mugimenduak Rigoberta Menchu antolatzen ari den

"Herri indijinen II. Bilera

Topaketa" eratzeko dirulaguntza biltzeko kanpainari ekin dio.

Kolektibo honek dei egiten die Euskal Herriko alderdi politiko, sindikatu edota gizarte mugimenduei kanpainan parte hartzera.

Interesatuak Elkarri irekitako kontu korrontean sar dezakete dirua: Euskadiko Kutxako 198.1.00536.9 kontu zka., Berriozar, Nafarroa.

Argazkilari bergararrak Elorrioren sarituak

Pol-Pol Argazki Taldeko kideek garaitzapen berriak lortu dituzte. Elorrioko "Errebonbillo" Argazki Lehiaketan Juan Tabaresek lehen saria lortu du koloretan. Bertako Diapositiba Rallyan, berriz, Benito Canterok bigarren saria lortu du eta Edu Moreno 16 urteko gazteak Gazte Saria eskuratu du.

ARDATZA
Brikolaketak

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.

Tfnoa: 76 43 07

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



GAZTELU

Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Asteartean urtero Elosun izango den ganadu feria izango dugu. Horri buruz eta baseritarren inguruan dauden beste arazo batzuei buruz hitzegiteko Maite Aristegirekin izan gara. Aristegi baserritarra izateaz aparte E.H.N.E. sindikatuko aholkulari juridikoa da.

- Bergaran urtean zehar hiru feria izaten dira, San Martin eguneko, Erramu Zapatukoa eta azkenik Elosukoa. Zela ikusten dituzu feria horiek?

- Oso ondo, batez ere baserritarren eta kaletarren arteko harremanak estutzen baitituzte. Bestalde ferietan baserritarren lanaren balorazio bat ere ematen da. Guzti hori ona da, baina askotan pasatzen da halako feriak gelditzen direla akto folkloriko baten moduan eta jendeak gauzak ikustez gain gure produktuak erostea ere, garrantzitsua izango litzateke.

Baina ez egun batean bakarrik urtean zehar baserritarren lana gehiago estimatu beharko litzateke. Elosura asteartean jende asko joango da eta hango inguruak eta zelaia garbi ikusiko dituzte eta kontutan izan behar dute hori baserritarren lanari esker dela eta horrek kostu bat du eta hori ordaintzea gizarte osoaren lana da.

- Gure herrian nekazal mundua ze egoeratan dago?

MAITE ARISTEGI

Baserritarren ordezkaria



"Merkatu berriak hutsune dexente ditu baserritarrentzat"

- Bergara inguru industriala dugu eta jende guztiak baserritik ihes egin du eta baserria bigarren maila batean laga eta azkenengo urtetako krisiak, prezio jeitsierak eta lanaren kontsiderazio eskasak baserritarren artera etsipena ekarri du. Nahiz eta nekazal munduan aurrerapenak eman diren, ura, telefonoa, bide konponketa, etb.etan... kaleko bizitzak aurea hartu dio baserrikoari.

- Ba al dago Bergaran bere produktuen sal-

mentaz bizi den baserritarrik?

- Bai, baserritik bakarrik bizi direnak dozena erdi bat izango dira eta beste baserrietan sekulako lana egiten da baserria mantentzeko nahiz eta beste sarrera batzuk egon baserrian zorionez asko mantentzen dira. Duela gutxi ikerketa bat egin dugu eta horren arabera orain datorren belaunaldi berria askoz ere gogo gutxiagorekin dator eta lehengo balore horiek (baserria garbi mantentzea,

ingurukoekiko harremanak...) hori asko aldatu da. Lan hori ez baita ordaintzen eta arrisku handia dago baserri giroa galtzeko, eta hori horrela ez gertatzeko gizarte osoaren laguntza beharrezkoa da.

- Pasa den urtarrilean bukatu ziren azoka berriko obrak eta ordutik hona, 8 hilabete, itxita dago. Baina zure ustez beharrezkoa da Bergaran azoka bat?

- Bergara herri dextea da eta premina batzuk badauzka eta bai herritarrentzako eta bai baserritarrentzako interesgarria izan daiteke. Garbi ikusi dugu baserritarrentzat, azoka, agian, irtenbide bakarrenetarikoa dela zuzenean saltzeko aukera ematen duelako eta erolearentzat konfidantzazko zerbitzu bat eskaintzen dugu eta kalitate aldetik ere segurtasun osoa eskaintzen dugu, gure produktuak egunekoak baitira. Beste azoka batzuetan salmentaz gain ekintza paraleloak antolatzen dituzte, antzerkiak, erakusketak, baserriko lanak ea... eskeintzen dituzte eta horrekin azokak bultzatzen dira.

- Herriko azoka berria ikusi eta gero zerpentsatzen duzue berrir buruz?

- Hutsune dexente ikusi diogu, batez ere funtzionalitate aldetik eta dagoen moduan ez litzateke batere praktikoa izango eta hobera jo beharrean txarrera egingo dugu. Hori ikusita baserritarrok nahiago dugu orain gauden merkatuan gelditzea. Pena da, zeren horrelako inbertsioa egin ondoren penagarria da gaurko beharretara ez egokitzea.

ZUZENDARI eta BEGIRALE ikastaroa

ZUZENDARI IKASTAROA

BALDINTZAK

- 21 urte izatea
- Begirale tituloa izatea
- %100 asistentzia
- Astialdiko praktikak egitea
- Praktikaren memoria egitea

EGUTEGIA

- Azaroak 20-21
- Abenduak 4-5-6-7-8
- Urtarrilak 8-9-22-23
- Otsaila 19-20

DOKUMENTAZIOA

- 2 argazki
- NANaren fotokopia
- Diru Sarreraren agiria

Ordutegia

- Larunbatetan:
10:00-13:30 eta 15:30-20.30
- Igandeetan:
09:30-13.30 eta 14:30-17:30

PREZIOA

- Matrikula: 30.000 pzta
- Pentsioa: 15.000 pzta

BEGIRALE IKASTAROA

BALDINTZAK

- Gutxiengo adina 18 urte edo 17 bukaeran
- %90 asistentzia
- Galdutako saioak lanen bidez errekeratzea
- Ikastaro bukaeran praktikak
- Astialdiko praktikaren memoria

EGUTEGIA

- Azaroak 6-7-13-14-27-28
- Abenduak 11-12-18-19-26-27-28-29-30
- Urtarrilak 15-16-29-30
- Otsaila 5-6-12-13-26-27

DOKUMENTAZIOA

- 2 argazki
- NANaren fotokopia
- Diru Sarreraren agiria

Ordutegia

- Larunbatetan:
10:00-13:30 eta 15:30-20:30
- Igandeetan:
9:30-13:30 eta 14:30-17:30

PREZIOA

- Matrikula: 25.000 pzta
- Pentsioa: 27.000 pzta

MATRIKULA eta INFORMAZIO GEHIAGO:

☎ 28 74 88 / 76 08 19 (JARDUN)

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Babeslea:



GIPUZKOAKO

Azken hilabeteetan bere osasun egoera makal xamarra zela jakin izan genuen, baita bizitza guztian izan dituen afiziorik nagusienak, irakurri eta idaztea, alde batera utzi beharrean izan zela ere. Antonio Urzelai joan zen ostegunean hil zen Arrasateko eritetxean minbiziak jota.

Hileta elizkizunak joan zen ostira-lean egin ziren San Pedroko parrokian. Eliza bete-bete, bere lagun eta familiartekoez, tartean alarguna, Blanca Eguren, eta Bittoriano, Sabin, Andoni eta Beatriz seme-alabek, azken agurra eman zioten. Antonio-oren gorpua Bergarako kanposantuan lurperatua izan zen.

Bergara bihotzean

Antonio Urzelai Alberdik (Bergara 1912) izugarri maite zuen bere herria. Bere bizitzako ordu ugari herriari buruz ikertzen eta idazten eman zituen. Idatzi zituen artikulo eta beste testu batzuen artean, 1990. urtean Udalaren eskutik argitaratu zuen "Bergara", 190 orrialde-tako liburua azpimarratu

Antonio Urzelai gogoratu

BERRIGARAko kolaboratzaile izandako enpresa gizon eta idazle bergararra joan zen ostegunean hil zen minbiziak jota

dezakegu. Liburu horretan Bergarako historia, gizartea eta ekonomia aztertutako zituen Urzelaik. Lan orduetatik kanpo idatzitako liburua oso erabilgarria izan da ondoren egin diren beste lan batzuetarako eta herriko etxe gehienetako apaletan aurki daiteke.

Antoniok beste proiektu batzuk ere bazituen eskuartean. Azken aldian, esate baterako, Bergarako kanposantuko historiari buruz ikertzen burubelarri lanean ziharduen.



Datu piloa bilduta zuen dagoeneko.

Gerra denboran kartzelaruta

Gerra denboran 3 urte

kartzelan pasa behar izan zituen gudarien kapitain izateagatik. "1937an Bilbon zegoela Nazionalek hartu zuten eta Santoñako El Dueso espetxean lehenengo eta Puerto Santa Marian gero, 1940. urtera arte kartzelan izan zen. Garai hartan Otxandiko frentean zegoen eta Nazionalek arma kimikoekin eraso egin behar zutelara enteratu ziren. Gure aita perittoa zenez, arma kimikoetatik nola babestu soldaduei erakusten jardun zuen"esan



Argazkian, Urzelaitarrak 1991.ean Hego Amerikara egindako bidai batean. Antonio Urzelairen parean bere emazte Blanca Eguren. Honen ondoan, Beatriz Urzelai, Iñaki Berasategi, Isabel Lazkano eta Sabin Urzelai.

diru bere seme Sabin Urzelaik.

Antonio Urzelaik 1934.ean bukatu zituen Santanderren perito ikasketak.

Gerra ostean, Julio Azkargortarekin batera matematika klaseak eman zituen Barrenkaleko akademia batean. Ondoren, Isidro Ezenarorekin batera, "Ecenarro y cía" enpresa sortu zuen. Hau itxi zenean "Comercial Urcelay" enpresa jarri zuen martxan.

Bere bizitzako azken urteetako ordu asko han eman zituen.

Euskaltzalea

Antoniok lan asko egin zuen euskararen eta Euskal Herriaren alde. Euskaraz lan mordoa idatzi zituen eta BERRIGARAren ere harreman zuzena zuen, aldika-aldika astekarian bere artikulak argitaratu izan ditugularik.

Idazteaz gain, hainbat aholku ere ematen zigun astekariari buruz. Horren lekuko, orain dela hilabete batzuk, gaztetxoei euskaraz idazteko zaletasuna pizteko gurera bidalitako idazki batean emandakoak. Idazki horretan zera esaten zuen Antoniok: "Ez al zaizue irizten BERRIGARA astekariak orri batzuk babesitu behar lituzkeela ikastoletako gazteek idatzi dezaten andereñoak eta monitoreak lagunduta? Interesgarria iruditzen zait gaztetatik idazten ipintzea gaztetxoak, idatiz euskara hobeto ikasi daitekeelako. Bestalde, gazteek euren lantxoak BERRIGARAren izenpetuta ikustean, izugarrizko pozaz hartuko lukete. Baita



1990-4-6: Antonio Urzelai "Bergara" liburuen aurkezpenaren. Presentazio ekitaldian, Miguel Moñux eta garai hartan Kultura zinegotzia zen Anaje Narbaiza ere izan ziren.

euren gurasoek ere".

Justo Garate

Bere bizitzari buruzko datuak eta idatzitako artikulak biltzen dituen liburua aurkeztu berri dela eta, azken egunotan notizia iturri izan den Justo Garate asko miresten zuten Antoniok eta harreman zuzena zuen berarekin. Bai gutunen bidez, zein telefonoz, maiz izaten zuten elkarren berri. Bere seme Sabinekin dioskunez: "aitak sarritan esaten zuen Aita Barandiaranen ondoren euskal kulturaren alde lan gehien egin duen gizona Justo Garate zela. Behar bada izugarri miresten zuelako edo, baina hori entzun nion behin baino gehiagotan aitari".

Enpresa gizon, idazle, euskaltzale, mendizale, perretxikuzale..., eta guzti horien gainera bergararra zen Antonio Urzelai joan zen asteen joan zitzaigun 81 urte zituela.

Kolaboratzaile fina


Bilera amaigabeak izaten genituen erredakzioan astelehenetan. Makina bat asmo, aldaketa eta egin behar, akordatuta ere! Arratsaldeko 7 t'erdia aldera, hilean behin gutxienez, Antonio etortzen zitzaigun. Orri sorta bat ekarri ohi zuen besapean eta umil-umil, hitz askorik esan gabe, mahai gainean uzten zigun, guk nahi izanez gero, errebistan argitaratzeko. Bilera geneukan mahaian jesartzen zen eta berriketari ekiten zion. Jende gaztearekin egotea izugarri gustatzen zitzaion. Horrela bera ere gaztetu egiten zela zioen.

Benetan kolaboratzaile fina eta jatorra genuen Antonio Urzelai, eta ez dut hau kunplizeagatik esaten, horrela zelako baizik. Inork deitu gabe etortzen zitzaigun, beti laguntzeko prest, baita kritikatzeko ere, eta zeresanik ez etorkizunerako proposamenak aurkezteko. Erabilitako gaiez, maketazioaz, hizkuntzaren tratamenduz eta abarrez bazuen beti zeresana.

BERRIGARAko erredakzio txoko batean bi sofore haundi daude, eta euren barruan milaka erretratu zahar. Lehenengo BERRIGARA kaleratu baino lehen, Antoniok, eskuzabal geuk erabiltzeko utzi zitzaigun, eta ez dizkiogu oraindik bueltatu. Ondo gordeko ditugu.

Miguel Angel ELKOROBEREZIBAR
(BERRIGARAko zuzendari ohia)

FS
oto istema

APPÉNI? 

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

LXLIKUN

BEREZITASUNAK


Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

KAILASH

**ZENTRO
ESOTERIKOA**

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikan
diplomatutako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

**Etxean animaliak edukitzearen
aldekoa zara?**



Jose Iñarra
62 urte, arotza

Asko baina gero pena ematen du hiltzen direnean. Orain ez daukat baina txakurrak eta katuak eduki izan ditut.



Isabel Moreno
32 urte, langilea

Ez gehiegi. lan asko ematen dute eta. Momentuan arrainak besterik ez dauzkat.



Idoia Elgoro
21 urte, ikaslea

Etxean ez zait gustatzen, ez dago espaziorik. Baserrietan edo askoz hobeto.



Josean Azpiroz
29 urte, langilea

Bai, badaukat txakur bat. Hala ere ez dut beti animaliarik eduki; kanarioak eta horrelakoak bai baina bestela ez.


BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - SS

BERGARA



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 07 78

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



**Estatua,
multinazionalen
segurantza
soziala**

Estatuen krisi biziak edo minbiziak urduri jarri gaitu aurrekontuen prestakuntza iritsi den orduan. Askoren ustetan hezkuntza eta pentsioak izango dira borroka honen galtzaileak. Inork ez omen du plazaratzen agian ejerzitorearen aurrekontuak murriztuaz diru mordoxka bat aurreratu daitekeenik. Udarako jostailuak urtero berriztu behar ditugu eta hor ez dago ezer ikutzerik.

Merkatu libreko gizarteetan gauza berbera gertatzen da Estatuak multinazionalen segurantza sozial bihurtzen direnean. Estatuak ia 300.000 milioi ordaindu zizkion Volkswagen enpresari SEAT erosteagatik. Orain zorrak zeruraino hazi direnean, enpresa pribatu hau Estatuaren atea jotzen ari da dirulaguntza berrien eske. Enpresa ondo badoa ez omen dago arazorik, kapital pribatuak berenganatzen ditu irabazi guztiak. Aldiz, zorrak sortzen diren momentuan, Administrazioak diruaren iturria zabaldu behar du, gatazka soziala sortarazi ez dadin. Azken finean aberririk ez duten kapitalek Estatu baten interesen gainetik negoziatzen dituzte berentzat egokien diren baldintzak. Txantaia ekonomiko izugarria.

Bitartean aurrezki kutxak eta bankuak krisiarekin negoziario eginez darraite. Dagoeneko diruaren prezioa % 3,75 jaitsi da baina kredituena % 1,55 bakarrik, alegia, etekinaren margena haunditu egin dela urtean zehar.

Iñigo Urrutia



**Elosuko
mendi ferixia**

Badakigu udazkenean gaudela, nahiz eta horretaz jabetzeko bakoitzak era ezberdinak izango dituen. Batzuentzako ordu aldaketa izango da urte sasoi berriaren seinale eta beste batzuk, ostera, irrati eta telebista bitartez izango dute urtaro berriaren berri.

Izadi eta eguraldiaren gorabeherekin hain lotua dagoen baserri munduak nabarmen somatzen du gauaren luzetzea eta horrek daraman eguzkiaren indar gutxitzea. Ondorioz, baratzak eta zuhaitzak neguaren gau luzean murgildu aurretik beraien azken fruituak ematen dituzte. Zelai eta mendi larretan, hotzak eta eguzki ezak belarrak kukiltzen ditu eta abere ezberdinak etxeratu beharra izaten da. Une horretan, silo eta sapaia zenbaiteraino beteak dauden abereak saldu beharra edo erosteko aukera aztertu beharra izaten da. Tratu premia honek eraginda, udazkenean ferixa ugari antolatzen da, Gernika, Zumarraga eta Elosukoa honen lekuko dira.

Elosuko mendi ferixa dugu, Gipuzkoan herrigunetatik kanpo eta baserri giroan egiten den bakarrenetakoa. Bertan, haragitarako gaitasuna daukaten abelgorriak, zaldi behorrak eta ardiak aurkituko dituzu eta zeure gustokorik topatzen ez baduzu ere, egun pasa ederra egiteko aukerarik izango duzu.

Sabin Lonbide

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

YAZKI

UME GAZTE
Neska eta Mutil

Irlzar 3 Ibargaral 8
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

FERNANDEZ



Oihal puskak
Oihalak

San Antonio 3 Ibargaral 2
Tfnoa: 76 22 93 Tfnoa: 76 53 22

Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.*


ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

I
Z
O
Z
K
I
A
K



I
Z
O
Z
K
I
A
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

ONENA

TINDATEGIA


Barrenkale 29, BERGARA

HEMEN

edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88



□ Jose Mari Egureni despedida

Igandean, hilak 10, **Jose Maria Setien** Gotzaiak 12 t'erdietan San Pedron emango duen mezarekin egingo zaio despedida azken 16 urteotan bertako parroko izan den **Jose Mari Egureni**. Aurretik 8 urte San Prudentzion eta beste 13 Antzuolan eman ditu Egurenek eta, orain, Gotzaiaren aginduz, Ordiziako Santa Ana parrokiara joango zaigu. Igandeko mezan, Egurenen agurrarekin batera, **Fidel Izagirre** zarautzarrari ongi-etorria egingo zaio.



□ Trikitixa ikastaroa kartzelan

29 lagun (20 soinuaz eta 9 panderoaz) ari dira JARDUN Elkarteak antolatutako trikitixa ikastaroan parte hartzen. Hemendik ekainera bitartean **Ritxar Cuevas** eta **losu Zezlagaren** eskutik trikitixaren sekretu guztiak ikasten saiatuko dira kartzela zaharrean eta norbaitek ikastaroan parte hartzeko interesa izanez gero izena emateko aukera du oraindik. Ea ba ekainean kontzerturen bat ematera ausartu eta beren maila ezagutzeko aukera dugun...

LAN ESKAINTZA

PERTSONA BAT BEHAR DA.

- Erdi edo goi mailako tituloduna (Marketinga, Ingenieritza Teknikoa, Enpresaritza).
- Ingelesa hitz egin eta idazten dakiena.
- Estatu zein nazioarte mailan lan egiteko.

Harremanetarako dei egin 76 82 65 telefonora, 10:00etatik 12:00etara bitartean.


□ Beñardo eta Agurtzaneren boda

Larunbatean **Agurtzane Loidi** bergararra eta **Beñardo Kortabarria** antzuolarra ezkondu ziren Antzuolako Uzarragako elizan. Beñardo **BERRIGARA**ko kolaboratzaile izan arren, berak eta Agurtzanek ez ziguten eskusiba saldu nahi izan baina *parazzi* zuhur baten bitartez urteko ezkontzako (hau bai) argazkia lortu dugu. Ezkontza ondoren familiartekoak eta gonbidatu guztiak Oñatiko Zelai-Zabal jatetxean bildu ziren. Ezkonberriek, berriz, Madeirako iria aukeratu dute ezkontza bidaiaz disfrutatzeko. Ondo pasa eta zorionak!!



Zertan dihardute ba?

IMPRECI Elk. Koop. Mug.a



Bergarako Impreci Elkarte Kooperatiba Mugatuak
AENOR Espainiako Normalizazio eta Egiaztapenerako Elkarteak ematen duen Enpresaren Kalitate Egiaztagiria lortu du.



□ Jardun maratoian!

Datorren urriaren 31n Donostian jokatu den Munduko Maratoi Kopan bergarar ordezkari izango da. **JARDUN** Elkartearen kamisetarekin 25 bat bergarar korrikalari izango dira irteeran atletismoko proba gogorrenetarikoari aurre egin asmoz. Horrez gain, handik 15 egunetera izango den Behobia-Donostia probara oraindik jende gehiago joango da (50 lagun inguru) eta hauek ere JARDUNeko koloreekin korritu ahal izango dute nahi izanez gero. Kamisetak salgai izango dira prezio ezinhobean (1.000 pta.) JARDUNen (Masterreka 13an). Animo!!

ARIENTZA



Probalari angiozartarrak igandean Laukizen jokatu eta Bilbao Bizkaia Kutzaren Sari Nagusirako baliogarria zen idi proba irabazi zuen 49 unte eta 6,45 m.ko markaz, mantak eta 150.000 pta. eskuratuz.

Zure konfidantzako denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Lagunan ardaux txikitua

Oso lagunak ziran bixak. Beti alkarrekin. Baiñan bixetako bat urriñera eta denbora askorako juan biar izan zan. Eta juaterakuan auxe kontseju au emon zetsan:

- Ara, aztu ez gaitxezen bata bestiaikin, ik tabernara oianian, eskatu beti bi txikito, bata iretzat eta bestia nere izenian. Eta kafia artzerakuan bardiñ.

Baita be kopia artzerakuan. Ik beti bi eskatu. Nik bardiñ eingo juat.

Tabernarixari emon zetsan esplikaziñua:

- Ara, bata neria dok, eta bestia lagunan izenian.

Eta olaxen urte mordoxka baten... Egun baten, baiña, sartu da tabernara:

- Ekarrük txikito bat bakarra.

Tabernarixak orduan:

- Zer? Lagunak il dok ala?

- Bai zera! Medikua edari guztiak prohibitu jestaz. Orregaitxik, oiñ lagunana bakarrik eraten juat.

Pedro Zelaia



25 urte bete zituen iaz Bergarako Odolemaileen Elkarreak

GIPUZKOAKO 10.000. ODOLEMAILEA, BERGARARRA

Bergarar bat -bere izena aipatzea, sobran dagoela uste dut-, bihurtu zen joan den astelehenean Gipuzkoako hamar milagarren odolemailea. Hori ospatzeko egin zen ekitaldian eta berriemaileekin batera, Don Jose Maria Otazu, Gipuzkoako Odolemaileen Elkarteko lehendakari jauna, Doña Maria Teresa Gangara andrea, lehendakariordea, eta Don Joseba Jauregi elkarteko zuzendaritza batzordeko kidea.

Odola ematera etorri zirenei likido preziatua atera ondoren, Otazu jaunak hartu zuen hitza eta azaldu zuen benetan goraiatzekoa dela Elkarrea egiten ari den lana eta azkenean urtean odolemaileen kopurua % 75ean gehitu dela eta berei esker Gipuzkoa eta Bergara punta-puntan daudela odolemaile-kopuruari dago-kionez.

La Voz de España.
1973-X-10.

Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak
hemerotekatik bildutako notiziak

Biltoki

BETI ZURE ZERBITZURA!

xey



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA
KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G
☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK,
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100
HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K

BARRENKALE, 6
☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK,
ALFOMBRAK, LARRUZKO
SOFAK, DEKORAZIORAKO
OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2
☎ 76 43 51




Zumelaga

JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

IÑASI ETXANIZ

Oraindik orain plazaratu berri den Justo Garate bergarar jakintsuaren artikuluak eta bizitzari buruzko datuak biltzen dituen liburuaren izena "Un critico en las Quimbambas. Autobiografia y escritos" da.

IÑASI ETXANIZek erantzun zuzena jarri du eta bera dugu aste honetako irabazlea. Berarentzat, **ZUBIKUA JANTZIDENDAK** emandako saria.

ZORIONAK !!

Besteok segi asmatzen! Animo!!

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53

**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



IÑASI ETXANIZEk jaso du aste honetan ZUBIKUA JANTZIDENDAK emandako saria.



Zumelaga

JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5

BERGARA

☎ 76 20 21

Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUMELAGA JATETXEAk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Bergaran kokaturiko moja ordenak hiru dira, hirurak zeregin desberdinetara zuzenduak: Klarisak bizitza kontenplatiboa daramate, Mariaren Lagundiak irakaskuntza eduki du bere zeregina sorreratik eta, azkenik, Sierbak ditugu, hauek gaixoen beharrak zerbitzatuz bizi dira. Azken aldi honetan jakina da herri guztian Sierbak alde egin behar dutela. Oxirondon duten egoitzan lagako duten hutsune horrek jende askorengan kezka sortu duelarik.

Jende gazteak oraingo bizilekuan ezagutu baditu ere, aurrez, 60ko hamarkadararte, Sierben komentua herriko beste leku batean zegoen.

Zein lekutan zegoen Sierben komentua oraingoa egin baino lehen?



izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDÉN bi sari egongo lirateke

Zabaleta hirugarren El Fiton

Aitor Zabaleta bergarar kotxe gidaria 3. postuan sailkatu zen igandean Asturiasen jokaturako El Fitoko kotxeen mendiko igoeran, Joan Vinyes eta Luis Martinezen atzetik. Proba hau Europako zein Espainiako txapelketetarako baliogarria zen. Pantxo Egozkue, Europakoa eskuratzeaz gain, lider dugu Espainiakoan eta Zabaleta bigarren tokian dugu.

Muruak finala galdu

Iker Muruamendi-raz bergarar pelotariak eta Ondargoi-
tiak 22 eta 8 galdu zuten Berraondo-
Idiakez bikote antzuolarren aurka San Migeletako Promesa Txapelketako finalean.

Josetxo Muniategi: "Ea aurreko denboraldia errepikatzen dugun"

Bergara K.E.ko eskubaloit taldeek joan den asteburua ekin zioten aurtengo denboraldiari. Josetxo Muniategi saileko arduradunak aurtengo asmoen berri eman digu.

- Aldaketarik izan da bergarar eskubaloian?

- Ez. Iaz bezala, aurten ere 5 talde aterako ditugu eta esan daiteke jende berak jarraitzen dugula hor lanean: jubenil mutilen taldea Ibon Gantxegi eta Mikel Arregik zuzenduko dute, Xabier Lijok kadeteena, Iñaki Cantorok nesken bi taldeak (jubenilak eta kadeteak) eta nik neuk seniorrena.

- Zure taldea bikain aritu zen iaz. Aurten zer?

- Iaz egin genuena egitearekin konformatuko nintzateke. Liga probintzian 2. tokian sailkatu ginen eta igoera fasean 5., lehen biak igoera lortu



Josetxo Muniategi.

zutelarik. Hori errepikatzea izango da gure helburu nagusia.

- Iazko taldea mantentzen duzue.

- Bai eta horrez gain 5 mutil igo dira lehen taldera. Talde hobea dugula uste dut baina akoplatu egin beharra daukagu. Iaz urtean zehar ondo ibili ginen, beldur naiz batxe bat izaten badugu jokalariek nola erantzango duten, moralki nola erreakzionatuko duten.

- Eta beste taldeak nola ikusten dituzu?

- Jubenil mailako neskek ekipo ona daukate baina beti ere tokatzen zaizkizun taldeen menpe zaude. Kadeteek (neskak) ere talde ona osatu dute eta mutilei dagokienez, ba jubenilak ea kategorian mantentzen diren eta kadeteak printzipioz aurrean ibiliko dira baina ikusi egin behar.

- Ze aurrekontu duzue?

- Milioi bat eta erdi. Bergarak milioi bat ematen digu eta gainontzekoa guk geuk lortu behar dugu. Oraingo direktibarekin oso ondo konpontzen gara eta aurten, aurrekontua osatzeko, jokalarri bakoitzak (75 kategoria guztietan) 2.000 pta. ordaindu behar izango ditu jokatzeko.

- Zerbait botatzen duzue faltan?

- Bai, dirua, entrena-tzaileak eta lanerako prest dagoen jendea, patrozinadoreak bilatzeko adibidez. Diru arazoa jasaten dugu guztiok.

Bazkide kanpaina zabalik Bergara K.E.an

Bergara K.E.ko Zuzendaritza Batzordeak dei orokor bat egin nahi die Bergarako herritarrei futbol, saskibalo, eskubalo eta pelota ikuskizunetara joan daitezen. Elkartearen bazkide egiteko kuotak honako hauek izango dira: tribuna (6.000 pta.), jenerala (5.000), jubilatua (1.000, 65 urtetik gora) eta ikasleak (2.000, beharrezko agiriarekin). Gazteei bereziki, ikasle kuotarekin, eta aurtengo denboraldian Agorrosinen astero partiduak izango direla kontutan izanik, partidu bakoitza 50 pta. tan aterako zaiela azpimarratu nahi du Direktibak.





Ozaeta-Altos Hornos aldeko lagun kuadrila

Ozaeta-Altos Hornos aldeko koadrila osatzen zuten gabardina luzez eta korbatatz dotore-dotore jantzita ageri diren mutikoteok. Ez ziren makalak orduko bergarar gazteak beren buruak apaintzen.

Erretratua Agorrosingo futbol zelaian aterata dago eta bertan agertzen diren gehienak ere herri mailako futbol txapelketan parte hartzen zuten "Acero" futbol taldearekin.

Adierazi digutenez, orduko dibersiñuak futbola eta pelota baino ez ziren eta bai baterako eta bai besterako gaur baino zaletasun haundiagoa zegoen: *"afizionatu mailako partiduetan ere frontoia jendez bete egiten zen"*.

Hara zeintzu agertzen diren ezkerretik eskumara:

Zutik: Jabier Laspiur, Gregorio Lazkano, Fernando Muruamendiaraz, Alberto Zurro, Andres Azkargorta eta Martin Agirre.

Erdian: Sabin Madariaga, Jose Mari Markoida, Pako Gabilondo, Jabier Agirreolea eta Gregorio Ezpeleta.

Makurtuta: Martin Juaristi, Luis Ezpeleta, Pako Juaristi eta Santi Iriarte.

Estepan Plazaola

Argazkia: Pako Gabilondo

ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIENTAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

ETXEBIZITZA

Garajea alokatzen dut Espoioian. ☎ 76 52 45.

Etxebizitza salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 79 83 50.

Pisua salgai San Lorenzo 1ean. ☎ 76 27 35.

Etxea alokatzen da Osintxun. ☎ 76 49 60.

Pisua salgai San Lorenzo. ☎ 76 27 35.

Pisua salgai San Lorenzo. ☎ 76 27 35.

Pertsona bat behar dugu Deustuan pisua osatzeko. ☎ 76 49 69.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 28 52.

Pisua alokatuko nuke. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

Bergaran pisua betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

DENETARIK

MSX ordenadoreko lau joku salgai. Kartutxoak. ☎ 76 59 47.

Argazki kamera eta kartera galdu ditut San Antontik Gorrara bidean. ☎ 76 52 39.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Karabana bat salgai. Ia berria. ☎ 77 04 98.

Argazki makina salgai: Nikon AF-601, 35-70 objektiboduna. ☎ 76 00 62.

Donostian pisua osatzeko neska bat behar da. ☎ 76 61 38 (Nerea).

Paseozko Peugeot bizikleta salgai. ☎ 76 48 68.

Ume kotxe bat salgai. ☎ 76 02 00.

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. Egoera onean. ☎ 76 38 68.

Ford Fiesta kotxea salgai. SS-K. Ondo zaindua. ☎ 76 58 12.

Uberan taberna salgai. Erreztasun haundiak. ☎ 76 25 99.

Opel Corsa kotxea salgai (SS-U). Ondo zaindua. ☎ 76 18 95.

Bigarren eskuko bizikleta estatiko bat erosiko nuke. ☎ 76 50 58.

Donostiara Ibaetara egunero kotxean joateko jendea behar dut. ☎ 76 01 14. (iluntzean).

Game boy bat salgai. 10 joku. 10.000 pzta. ☎ 76 51 98 (iluntzean).

Renault Super 5 kotxea salgai. BI-AL matrikula. ☎ 76 52 90.

Egunero goizeko 7etan Zumarraga edota Tolosara joateko kotxea behar dut. ☎ 76 48 78.

LANA

Emakume batek etxeak garbituko lituzke ordu batzuetan. ☎ 76 47 67.

Latin, Euskara eta Frantses klaseak. ☎ 76 02 99.

OHO eta ingeles klaseak emango nituzke. ☎ 76 23 67 / 76 22 90.

Etxeak garbitu edota pertsonak zainduko nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

OHO eta ingeles (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko nituzke. ☎ 76 26 63.

Ingeleseko klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Ingeleseko klaseak emango nituzke. ☎ 76 31

Ordenadorez lanak pasatuko nituzke. ☎ 76 05 43.

Ilea eta bizarra moztera joango nintzateke etxez etxe. ☎ 76 41 98.

Ingeles klaseak emango nituzke. ☎ 76 46 54.

OHO eta LH (Administratza) klaseak. ☎ 76 50 67.

Hildakoak

Arantza Olabarria Uribarren

irailak 30, 35 urte

Antonio Urzelai Alberdi

irailak 30, 81 urte

Jose Urrutia Makazaga

urriak 4, 72 urte

Jaiotakoak

Nerea Gonzalez Arenaza irailak 17
Aritz Oteiza Lasagabaster irail. 23
Andoni Gorrotxategi Dominguez ir.23
Iker Gorrotxategi Dominguez ir.23
Amaita Begiristain Mujika irail.26
Igor Igartua Fernandez irail.26
Asier Beitia Martin irail.27
Andoni Beitia Martin irail.27

AUTOPULLMANS ARABA**Autobusak**

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

Sugoi

- ERLOJUAK •
- ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK •
- KALKULADORAK •
- ZILARRA •
- METALEN BAINU ETA
BERRIZTAPENA •

**DENDA
BERRIA!!**

**GAURTIK
ZABALIK!!**

Irizar pasealekua, 2 behea • ☎ 76 59 54 • BERGARA

HALTZARI


FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea

Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA

(Gipuzkoa)



FAGOR



SUKALDERAKO ALTZARIAK



**6 URTEKO
GARANTIA**